

# RESPALDIZA / ARESPALDITZA

— ARABA / ÁLAVA —

Arespalditzako Gasteiztik 47 km-ra dago, Aiarako haranaren erdian, Arabatik Bizkaiko Enkarterriera joateko eta Burgostik Gorobel mendilerroan zehar Kantaurira joateko bideen gurutzagunean. Gaur egun, Aiara udalerriaren buru da, izen bereko kua-drillaren barruan.

Kokapen horrentzat, Arespalditzako Aiara haraneko gune garrantzitsuenetakoak izan da beti. Izena 1095. urtean azaltzen da dagoeneko, Laudioko elizaren sagaratze-ospakizunetan. Jasokundeko elizak barruan bi hilobi ditu, eta, tradizioaren arabera, Ayalatarren leinuaren fundatzaileetako birenak dira: Vela kondearena, eta haren semeetako batena, Vela Velázquez. XI. mendekoak dira hilobiok. XVI. mendean, Gil Lizentziatuak 1556. urtean egindako bisitan, artzaez-barrutiko ikustaldi orokorra Arespalditzako parrokian egin zen, "Aiarako zaharrena zelako". Horrez gainera, Aiarako haraneko Batzordearen bilgune eta karguen zina egiteko lekua ere izan zen, XVIII. mendearren amaieran udaletxea eraiki zuten arte. Elizako dorrea haraneko kartzela ere izan zen denbora batez.

Respaldiza se encuentra situada a 47 km de Vitoria, en el centro del valle de Ayala, en el cruce de los caminos de Álava a las Encartaciones de Bizkaia y del Cantábrico con Burgos por la Sierra Salvada. Actualmente es cabeza del ayuntamiento del municipio de Ayala dentro de la Cuadrilla del mismo nombre.

Debido a su emplazamiento, Respaldiza ha sido desde siempre uno de los núcleos más importantes del Valle de Ayala. El nombre aparece ya en 1095 en el acto de consagración de la iglesia de Llodio. La iglesia de la Asunción guarda en su interior dos sepulturas que, según la tradición, pertenecen a dos de los fundadores de la dinastía de los Ayala, el conde don Vela y uno de sus hijos, Vela Velázquez, datables en el siglo XI. Ya en el siglo XVI, durante la visita del licenciado Gil en 1556, se hace en la parroquia de la localidad la "visitación general del arciprestazgo por ser la más antigua de Ayala". Fue también lugar de reunión y de juramento de cargos de las Juntas del Valle de Ayala hasta la construcción del ayuntamiento a finales del siglo XVIII. La torre de la iglesia sirvió de cárcel del valle.

## *Jasokundeko Andre Maria eliza Iglesia de Nuestra Señora de la Asunción*

XVII. MENDEKO eraikina da, eta mendebaldeko aldean udaletxea dauka erantsita. Hegozko fatxadan, estalpe itxurako elizpean, portada dago. Aiara haraneko ederrenetakoak da eta oso estu lotuta dago Lautadako erromanikoarekin. Hiru arkiboltak zorrotz eta des-karga-arku bat ditu. Lehenengo eta hirugarren arkiboltak baketoidunak dira. Bigarrena, berriz, bertikalean ezarrita dauden akanto lirainez dago apainduta; punta kanporantz itzulita dute eta trepano-punteatua. Deskarga-arkua txanodun bolaz dago apainduta.

Arku-multzoa apaindura moduan zurtoin izurtuak eta hostoak dituen inposta baten gainean ezarrita dago. Bigarren eta hirugarren arkiboltak zutabe bikote baten gaineara datozen. Fustek argi erakusten dute Estibalizen eragina;

S E TRATA DE UN EDIFICIO del siglo XVII en cuyo lado oeste se adosó el Ayuntamiento. En la fachada sur, bajo un pórtico a modo de cobertizo, se encuentra, avanzando sobre el muro, la portada, una de las más bellas del valle de Ayala e intimamente relacionada con el románico de la Llanada. Consta de tres arquivoltas apuntadas y sobrearcos. Las arquivoltas primera y tercera son baquetonadas, mientras que la segunda se decora con acantos estilizados colocados en vertical, con la punta vuelta hacia afuera y punteado de trépano. El sobrearcos aparece ornamentado con bolas con caperuza.

El conjunto de los arcos se apoya en una imposta decorada con tallos ondulantes y hojas. La segunda y tercera arquivoltas descansan sobre una pareja de columnas cuyos

saski-itxurako motiboz eta botoiak dituzten koadrifoliatuaz daude apainduta.

Kapitelei dagokienez, barnekoek akanto-hosto oso landuak dituzte, trepanoarekin eta puntak kanporantz itzulia; horrez gain, bolutak dituzte angeluetan lotuta eta hostoak goiko partean. Kanpo-kapitelek antzeko bolutak dituzte goiko aldean, eta, horrez gain, erpinetan, pinaburuak dingilizka dituzten hostoak dituzte. Ezkerreko barne-kapitelaren lepokoak iltze-buruen lerro fina du; eskuineko barne-kapitelak, berriz, sigi-saga jarritako lendar-e-motiboak ditu. Beste bi lepokoak lisoak dira. Harroinak atzapar-itxurakoak dira, eta angeluetan bolak dituzte. Eskuineko barne-harroina zerra-hortzeko lerro batez dago apainduta, gainera.

Horman sartuta dagoen portadaren esquinera, hilobi-laudo bat dago jarrita, jatorria aipatu gabe; mauka zabaleko tunika bat jantzita daraman monje edo elizgizon baten irudia dauka, baina aurpegia higatuta dauka. Pertsonaia horren ondoan, ERA MCCV / HIC CON / TINEMT / VR ABAS / PETRVS inskripzioa irakur daiteke, hilobia 1167. urtean kokatuz.

Arku zorrotza azaltzen da, eta, beraz, ezin esan kasu honetan ere, Añes ondoko herrian azaltzen den bezala, berant erromanikoa eta landugabea dela; gotikorako

fustes delatan la influencia directa de Estíbaliz. Los fustes se decoran con motivos de encestado y cuadrifolios que albergan botones.

En cuanto a los capiteles, los interiores presentan hojas de acanto muy labradas, con el trépano y con las puntas vueltas hacia afuera, así como volutas unidas en el ángulo y hojas en la parte superior. Los capiteles exteriores muestran, además de idénticas volutas superiores, hojas con piñas colgantes en los vértices. El collarino del capitel interior izquierdo muestra una fina línea de cabezas de clavo, mientras que el interior derecho presenta vegetales en zigzag. Los otros dos collarinos son lisos. Las basas son de garras, con bolas en los ángulos. La basa interior derecha se decora además con una línea de dientes de sierra.

A la derecha de esta portada, embutida en el muro, se conserva una lauda sepulcral, allí intestada sin que conste su origen, con la figura de un monje o clérigo de vestiduras de mangas amplias, aunque su rostro aparece borrado. Junto a este personaje se lee la inscripción ERA MCCV / HIC CON / TINEMT / VR ABAS / PETRVS, datando así la sepultura en el año 1167.

La elección del arco apuntado desbanca el románico antiguo y rural que se puede apreciar en la cercana localidad de Añes, haciendo eco de las nuevas corrientes de



Portada

Portada



Portadako kapitelak

Capiteles de la portada

garapenean iritsitako korronte berriak hartu zituen non-bait hemengoak. Fuste erretikulatuek argi erakusten du-te Estibalizko *Speciosa* atearen maisu-tailerraren eragina; apaintzeko erabiltzen den diseinu hori nahiko ugaria da Arabako Lautadako tenpluetan, eta iparrerantz ere zabaldu zen, Urrunaga aldera –han dago saski-itxurako zerrendak dituzten zirkuluen motiboa, Delikan–, eta Arespalditzara bertara ere; eta, hortik, gero, Euskal Herriaren iparrerantz, Fruiz eta Zumetxagako Bizkaiko elizetara ere bai. Eragin-esparru hori Burgos aldera ere zabaldu zen, hurbil dagoen Losako haranera esaterako –Losako San Pantaleón baselizan fuste erretikulatuak daude–; eta Bedarreta-Aretxabale-tara (Gipuzkoa), Araba hegoaldera eta Trebiñura –Pedruzo eta Fuidio–, eta Ochandurira (Errioxa), baita Leartza eta Garesera ere (Nafarroa).

Testua eta argazkiak: REA

evolución hacia el gótico. Los fustes reticulados muestran el área de influencia del taller de la *Puerta Speciosa* de Estíbaliz, cuyo diseño ornamental, relativamente frecuente en templos de la Llanada alavesa, se extendió hacia el Norte en la zona de Urrúnaga –donde se halla el motivo de círculos con bandas de encestado en Délica– en la propia Respaldiza, y de aquí hacia el norte del País Vasco, en las iglesias vizcaínas de Fruiz y Zumetxaga. También el área de influencia está conectada con tierras de Burgos, en el cercano valle de Losa –donde se conservan fustes reticulados en la ermita de San Pantaleón de Losa–, así como en Bedarreta, en Aretxabaleta (Gipuzkoa), zonas del sur de Álava y Treviño –como en Pedruzo y Fuidio–, e incluso en Ochanduri, en La Rioja, o en Learza y Puente la Reina, en Navarra.

Texto y fotos: REA

#### Bibliografía / Bibliografía

CASTRO, C. de, 1915, pp. 205-206; GÓMEZ GÓMEZ, A., 1997a, pp. 115-121; GÓMEZ GÓMEZ, A., 1998, pp. 103-105; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 50; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997b, pp. 70-71, 266, fig. 33-34, 142-143; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1990, pp. 42, 52, 57; MARTÍNEZ-TORRES, L. M., 2004, p. 142, fig. 250; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1988, pp. 818-819, fig. 574-575, 578.



1176ko inskripzioa

Inscripción de 1176